



Agur,

Klima aldaketaren arloan gertatzen ahal den egoera txarrena saiestu nahi badugu, gaurdanik nahi eta behar dugu jendartea aldatu. **Zuen lanak biharko beharrezkoa den mundu hori ordezkatzeko du, gaurdanik martxan ezartzen ahal diren hainbat alternatiba konkreturen artean.**

Karia horretara zuen egitura Baionara gomitatzen dugu 2010eko urriaren 10an Klimaren aldeko nazioarteko 10-10-10 mobilizazio egunarendako ALTERNATIBA Herrian parte hartzera.

Alternatiba biharko munduruntz transizioan izanen den herri bat izanen da. Osoki oinezkoentzat izanen den eremu batean izanen da, kaia batek, 4 karririk eta plaza batek osatuko dutelarik Baionako hiri erdigunean.

Karrikaz karrika, ikusten ahalko dugu zein diren proiektu eta alternatiba zehatzak (AMAPak, baratze partekatuak, laborantza herrikoi eta iraunkorra, eko-erakuntza, auto partekatzea, ekonomiaren ber tokiratzea, bidezko merkataritza, ingurumenari buruzko hezkuntza, energia ekonomiak, ingurumena errespetatzen duten garraio moldeak, "pedibus" a, banko etikoak, berziklatzea, etab.) Alternatiba horiek, gaur egun, bakotxari (norbanakoari, elkargoei, elkarte eta entitate ezberdinei) eta konkretuki berotegi efektuko gasen isurketa tipitzea ahal bidetzen dute.

Jendeek ikusiko dute zein egiteko molde alternatibo badiren eta beren gain hartzen ahalko dute bat, bi edo hiruren asumitzea datorren urtean.

Zuen partaidetza baieztatzeaz eskertzen zaituztegu, bai eta zuen beharren agertzeaz (toki, tresna, etab. mailan) irailaren 22a aintzin.

Alternatiba herriaren antolakutnzari buruz eta oro har 10-10-10 egunari buruz gehiago xehetasun lortuko dituzue loturik den txostenan.

Zuen erantzunaren menturan, har ezazkizue gure agurrik beroenak.

Bizi !

20, Cordeliers karrika 64 100 Baiona

Tel : 05 59 25 65 52

info@bizimugi.eu

<http://www.bizimugi.eu/>